



GABONETAKO XXXIII. IDAZLAN LEHIAKETA

URRETXU eta ZUMARRAGA 2021

Urretxu eta Zumarragan, 2021eko abenduaren 8an, honako erabakia hartu du Idazlan Lehiaketako epaimahaiak:

ERABAKIA:

Saridunen izenak zeintzuk diren esan aurretik epaimahaiak ondokoa adierazi nahi du:

1. Maila batean zein bestean **partaidetza oso zabala** izan da eta lan askoren maila bikaina. Hori dela eta, benetan zaila izan da maila bakoitzeko hiru lan onenak aukeratzea.
2. Lan sarituak aukeratzeko orduan, **aukeraketa etapa ezberdinetan** egin da. Lehenengo etapan lan guztiak irakurri dira (247 eta 215); horrela, lan horien guztien artetik, txikien mailan 34 lan aurre-hautatu dira eta handien mailan 43. Segidan, bigarren irakurketa bat egin zaie lan aurre-hautatu horiei eta maila bakoitzeko azken aurre-hautaketa bat egin da: 12 txikien mailan eta 10 handien mailan. Azkenik 3 lanik onenak aukeratu dira maila bakoitzean.
3. Saririk gabe geratu diren **lan asko eta asko maila oso handikoak** izan dira baita ere, baina azken irakurraldian xehetasunetan jarri da arreta eta horrela hartu da azken erabakia. Edozein kasutan, lan batzuk saritu eta besteak saririk gabe uztea ez da erraza izan.
4. Epaimahaiak bereziki **zoriondu** nahi ditu lehiaketan parte hartu duten haur guztiak, eta baita beraien gurasoak eta eskoletako irakasleak ere, haur horiengan idazteko zaletasuna sustatu eta bultzatzeagatik. Beste behin ere argi geratu da Zumarragan eta Urretxun maila handia dagoela eta hori bereziki poztekoa da, are gehiago lehiaketa honetara aurkeztu diren ipuin guztiak **euskaraz** idatziak izan direla kontuan hartuz.

A. Taldea (L.H.ko 3. eta 4. mailakoak)

247 idazlan aurkeztuta

GAIA: "Urte hartan berekin pasa nituen Gabonak."

1. **saria:** Salma Bouzerda Amenchar
2. **saria:** Ekain Perez de Miguel
3. **saria:** Oihan Chefrad Canduela

B. Taldea (L.H.ko 5. eta 6. mailakoak)

215 idazlan aurkeztuta

GAIA: "Gertaera hark erakutsi zidan beti ezin dela norberak nahi duena lortu."

1. **saria:** Irati San Vicente Elejalde
2. **saria:** Intza Oiartzabal Amenabar
3. **saria:** Paula Ibarzabal Pozueta

Eta horrela jasota gera dadin, akta hau izenpetzen dute.